

21/10 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Ainara Ibañez
Aitor Idigoras
Ana Marta Iriarte
Mari Tere Ojanguren
Eduardo Ubieta
Jone Unzueta
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko ekainaren 30ean bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Hezkuntza Sailak finantzatutako EAeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari buruzko Dekretuaren bigarren aldaketaren dekretu-proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

19ko 69/2015 Dekretuak hezkuntza-administrazioak ikastetxe publikoetako ikasleentzat antolatutako edo finantzatutako eskola-garraioa zein kasutan eta baldintzatan erabili daitekeen jasotzen du, baita hezkuntza-zerbitzu osagarri hori emateko eta erabiltzeko modalitateak ere.

Bestalde, azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuak eskola-garraioari buruzko dekretua aldatu zuen, haur-hezkuntzako lehen zikloko ikasleak haren aplikazio-eremuan sartzeko xedearekin, bai eta oinarrizko lanbide-heziketakoak ere.

II. EDUKIA

Dekretu-proiektu honek bost artikulua eta azken xedapen bat ditu:

Artikuluek honela aldatzen dute 69/2015 Dekretua:

Lehenengo artikulua: 4. artikulua 4. paragrafoa aldatzen du, eta honako tarteki hau gehitzen du: "

«Sailak zehaztutako nahitaezko gutxienerako asistentzia betetzen ez duten ikasleek eskola-jantokietan kuota murriztua izateko eskubidea galdu egingo dute.»

Bigarren artikulua: eskola-garraiorako eskubidearen baldintzak arautzen dituen 5. artikulua aldatzen du.

Hirugarren eta laugarren artikulua: atal bana gehitzen diote 5. artikuluari, zaintza partekatuen kasuetarako.

Bosgarren artikulua: kendu egiten da 6. artikuluko c) idatz-zatia, zaintza partekatuen kasuei buruzkoa.

Azken Xedapenak dekretu hau indarrean noiz jarriko den zehazten du.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 69/2015 Dekretuaren iritzia eman zuen 14/07 Irizpenean. Era berean, 186/2019 Dekretuaren iritzia eman zuen 19/07 irizpinean

Irizpenean Dekretu-proiektu honek aldaketa hauek proposatzen ditu:

- Ikasleen bertaratze-kontrola ezartzea, esleitutako eskola-garraioa erabiltzen ez duten ikasleek jantokiko kuota murriztua jaso ez dezaten.
- Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek eskola-garraiorako eskubidez gozatzeko eskatzen diren baldintzak egokitzea, ikasle horien onarpena arautzen duen prozeduran xedatutakoaren arabera.
- Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak barne hartzea, etapa edozein dela ere, 2 kilometro edo gehiagoko distantziarekin.
- Zehaztu nola neurtuko den ikasleen bizilekuaren eta ikastetxearen arteko distantzia. Era berean, nola jokatu behar den zehaztu behar da, tresna informatikoak kalkulaturako ibilbidea zirkulatzeko modukoa ez den kasuetan.
- Oinarrizko LHko ikasleek eskola-garraiorako duten eskubidez gozatu ahal izateko gehienezko adin-muga berrikustea.
- Zaintza partekatuen kasuetan, bi gurasoen etxebizitza txandakatuz gero, ikasleak bi etxebizitzetatik eskola-garraioa erabiltzeko eskubidea duela onartzea.

Artikuluei buruzko oharrak:

- Lehenengo artikulua honako hau zehazten duen tarteki bat gehitzen du: "*«Sailak zehaztutako nahitaezko gutxieneko asistentzia betetzen ez duten ikasleek eskola-jantokietan kuota murriztua izateko eskubidea galdu egingo dute.»*

Zioen azalpenak aldaketa hori justifikatzen du; izan ere, Sailak eskola-garraiorako eskubidearen abusuzko erabilera atzeman du, zeinaren arabera, horrek eskola-jantokietan kuota murriztua izateko eskubidea dakar; beraz, ikasleen zati batek garraioa erabili gabe eskatzen du, murrizketa hori lortzeko.

Kontseiluak informazioa eskatu du zirkunstantzia horiek zenbat eta zein kasutan gertatzen diren jakiteko, eta uste du altua izango dela aldaketa hori eragin ahal izateko. Gaur egun ez da erantzunik jaso.

Kontseiluaren ustez, garrantzitsua da baliabide publikoak behar bezala kudeatzea eta erabiltzea, ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko; beraz, ez dago neurriak hartzearen aurka, justifikatuta badago.

Horregatik, uste du alderdi hori maila apalagoko arau batean arautu behar dela, eta honako alderdi hauek hartu beharko lirakeela kontuan.

- Lehenik eta behin, sor daitekeen kasuistika handia dela uste dugu, familia-eredu berriak edo laneko gaiak bezalako faktoreengatik, kontziliazioa zailtzen baitute. Adibide gisa, arratsaldean kokatuta dauden ikastetxean edo udalerrian bertan eskolaz kanpo egiteko geratzen diren ikasleak aipa ditzakegu, gurasoen lanaldimotak, langabezia, enplegu-erregulazioko espedienteak, beste senide batzuen laguntza duten guraso bakarreko familiak, jatorrizko bizileku desberdinak, zaintza partekaturik ez badago ere, etab.

Horregatik, gure ustez, diagnostiko bat egin beharko litzateke gai horren inguruan, eta kuotaren murrizketa ezabatzeko prozedura bat hasi aurretik, familiei zerbitzuaren baldintzen berri eman beharko litzaieke; ikasturtearen hasieran horiek bertaratzeko konpromisoa sina lezakete, bai eta gertatzen den edozein aldaketaren edo salbuespenezko justifikazioaren berri eman ere.

- Argi eta garbi zehaztu beharko lirakeke asistentzia kontrolatzeko irizpideak eta prozedura, hartutako konpromisoa betetzen ez bada.
- AKATSA: gure ustez, eskola-garraioko laguntzaileei buruzko paragrafo bat kendu behar da zioen azalpenean, ez baitu artikulatuan islatzen

Azkenik, proposatutako gainerako aldaketei dagokienez, Kontseiluak egokitzat jotzen ditu, eta kudeaketa hobea eta erabiltzaileei zerbitzu hobea ematen lagun dezakete.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2021eko ekainaren 30ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA